



Arartekoaren 2017R-308-17 Ebazpena, 2017ko abenduaren.12koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari gomendatzen zaio ebazpena eman dezan otsailaren 14ko 16/2013 Foru Aginduaren aurka aurkeztutako berraztertze-errekurtsoaren inguruan eta gogorarazten zaio ebazpenak emateko eta jakinarazteko betebeharra duela, legearen aginduz.

Aurrekariak

1. 2017ko otsailaren 14an, (...) Elkarteak kexa aurkeztu du Arartekoan, 2008ko ekitaldirako diru-laguntzaren behin betiko kitapena onartzeko otsailaren 14ko 16/2013 Foru Aginduaren aurka 2013ko apirilaren 2an aurkeztutako berraztertze-errekurtsoari erantzunik jaso ez dutela salatzeke.

Arabako Foru Aldundiak, 490/2008 Erabakiaren bidez, diru-laguntza bat ematea erabaki zuen, gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonei arreta emateko (...) abian jartzen laguntzeko. 2008. urtean, Elkarteak 171.000 euro jaso zuen (diru-laguntza osoaren % 90). Gainerako % 10a (19.000 euro) jasotzeko, egindako gastuak abenduaren 31ra egiaztatu behar izan zituen.

2009ko urtarrilaren 28an, Elkarteak azaltzen duenez, 193.530,52 euroko zenbatekoa justifikatzeko agiriak aurkeztu zituzten. Geroago, Arabako Foru Aldundiak zenbait ordainagiri eta azalpen aurkezteko eskatu zuen, eta 12.641,80 euro ordaindu zuen. 2013ko otsailaren 18an, diru-laguntzaren behin betiko kitapena onartu zen, 16/2013 Foru Aginduaren bidez. Agindu horren aurka aurkeztu zen berraztertze-errekurtsoa. Denbora igaro bada ere, Arabako Foru Aldundiak ez du inolako ebazpenik eman.

2. Arartekoak, kexa izapidetzeko onartu ondoren, lankidetzak eskatera bidali zion Arabako Foru Aldundiari eta informazioa eskatu zion 2013ko apirilaren 2an aurkeztutako errekurtsoari erantzunik ezaren inguruan. Halaber, galdetu zion noiz emango zuen zegokion ebazpena, prozeduran agertzen ziren formako eta edukiko arazo guztiei buruz.
3. 2017ko ekainaren 20an, Arabako Foru Aldundiak erantzun egin zion erakunde honi, alde aurretik honako hau esanez: *“el transcurso del plazo acaecido ha supuesto la prescripción de cualquier acción que se pudiera pretender al respecto”*.

Era berean, burututako jarduketan berri eman zion:

Lehenik eta behin, aipatu zuen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2008ko uztailaren 15ean hartutako erabakiz esleitu zitzaiola Elkarteari (...) 190.000 euroko diru-laguntza, (...) abian jartzen



laguntzeko"(...)". Justifikazioa aurkezteko epemuga ezarri zen: 2008ko abenduaren 31.

Bigarrenik, jakinarazi zuen: *“Ante la ausencia de justificación y tras requerimientos realizados por el Instituto Foral de Bienestar Social, la asociación presenta con fecha 28 de enero de 2009 una justificación manifiestamente insuficiente cuya subsanación se solicita de forma reiterada en múltiples ocasiones. Tras la puesta a disposición del expediente a la asociación e incontables entrevistas y citas con personal de esta Administración Foral, se procede con fecha 20 de octubre de 2009 a realizar propuesta de liquidación de dicha subvención contra la que se presentan alegaciones. Valoradas éstas, y tenidas alguna de ellas en consideración, se procede a abonar con fecha 23 de noviembre de 2009 la cantidad de 12.641,80 € en lugar de los 19.000,00 que habían quedado pendientes de abono, ya que varios de los conceptos justificados no se consideran subvencionables.*

Finalmente con fecha 14 de febrero de 2013 se dicta por la Diputada Foral de Servicios Sociales una Orden Foral, que es efectivamente notificada el 1 de marzo de 2013, fijando definitivamente la cantidad a conceder en concepto de subvención y dar por definitivamente liquidada la cuantía anterior”.

Foru Aldundiak esan zuen gainera: *“[s]e le concedieron y abonaron 171.000,00 € por anticipado y 12.641,80€ con posterioridad lo que hacen un total de 183.641,80 €, en lugar de los 190.000,00 € pretendidos por la asociación. Contra dicha Orden Foral, que ponía fin a la vía administrativa, se interpone con fecha 3 de abril de 2013 recurso potestativo de reposición ante la propia Diputada Foral”.*

Eta bukatzeko, hauxe esan zuen: *“[s]i bien este Instituto Foral de Bienestar Social coincide con que la Administración pública debe de resolver expresamente, y no por silencio administrativo, cuantas cuestiones se le planteen, en esta ocasión desconocemos los motivos por los que no consta en esta Administración Foral la resolución que en su momento debió de adoptarse, por lo que se deberá dar por supuesto que el citado recurso fue desestimado por silencio administrativo”.*

4. Arartekoak kexa aurkeztu zuen elkarteari eman zion jasotako erantzunaren berri, eta horrek burututako jarduketan inguruko alegazioak helarazi zituen, esleitutako diru-laguntzaren kitapenaren administrazio-egintzaren berri jasotzeko. Azkenean, 2013ko otsailaren 14an egin zen kitapena. Ebazpen horren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zen, baina, denbora igaro arren, ez zen horren inguruko esanbidezko ebazpenik eman. Hori dela eta, kexagileak Arartekora jo du, esanbidezko erantzunik eza Zuzenbidearen aurkakoa dela uste duelako.

Gogoetak

1. Aurreko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusi bezala, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Lege berriak gehienez ere hilabeteko epea ezarri du berraztertze-errekurtsoaren ebazpena eman eta jakinarazteko; hain zuzen ere, bere 124.2 artikuluan: *“Errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete izango da”*.

Ebazpenak emateko betebeharra, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan xedatua, gure ordenamendu juridikoan aspalditik agertzen dena, oso lotuta dago administrazioak beren eskubideak banaka edo taldeka, kasu honetan bezala, baliatzen dituzten eta administrazio-prozeduretan sartuta dauden herritarrak errespetuz tratatzeko eskakizunarekin:

“1. Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.

Preskripzioa, eskubideari uko egitea, prozedura iraungitzea edo eskaeran atzera egitea gertatzen denean, eta orobat prozeduraren xedea gerora desagertzen denean, kasuan-kasuan gertatutakoa adieraztea izango da ebazpena, jazotako egitateak eta aplikatzekoak diren arauak zehaztuta.

Lehenengo paragrafoan aipatutako betebeharretik salbuetsita daude prozedura itun edo hitzarmen bidez amaitzen diren kasuak eta, orobat, erantzukizunpeko adierazpena edo Administrazioari komunikatzea beste betebeharririk ez dakarten eskubideak baliatzeari dagozkion prozedurak. 2. (...).”

Ondorioz, itun edo hitzarmen bidez amaitzen diren kasuak eta Administrazioari komunikatzea beste betebeharririk ez dakarten eskubideak baliatzeari dagozkion prozedurak bakarrik salbuetsita daude betebeharrak orokor horretatik.

Ebazteko betebeharrak, ahalik eta hoberen hautatutako doktrina aipatzeko,¹ 1. Indartzen ditu herritarraren bermeak, Administrazioak era batera jokatzeo arrazoiak ezagutzeko aukera ematen diolako. 2. Segurtasun juridiko handiagoa ematen die herritarrak Administrazioarekin edo beste batzuekin dituen harremanei. 3. Funtzionamendu onaren seinale da Administrazioen jardura formalizatuan. 4. Hobetu egiten du Administrazioaren irudia edo herritarrek Administrazioari buruz daukaten iritzia.

2. Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikulua arabera, herri-administrazioak legeari eta zuzenbideari men eginez jardun behar du, hortaz, aintzat hartu

¹ Rodríguez Arana Muñoz, 4396/1997 Legean argitaratutako hitzaldia, Pérez-Tenessak eta Herrero de Miñónek sinatua

behar du legez ezarritako ebazteko betebeharra; epea amaitzen bada ere, betebeharra ez da desagertzen. Aurkeztutako eskaerei edo errekurtsioei erantzunik ez emateak ez du justifikazio juridikorik, eta ez dago berretsita preskripzioa bezalako ezarpen juridikoaren bidez. Prozedura guztiak ebazteko betebeharra Administrazio Publikoari dagokion eginkizuna da, hortaz, ez dago erantzunik eza justifika dezakeen eta legez baliozkoa den zurigarririk, isiltasun negatiboa bezalako figura juridikoa aplikatuta auzibidera jotzeko aukera badago ere.

Konstituzio Auzitegiak luze eta zabal aztertu du ebazteko betebeharra eta behin baino gehiagotan esan du esanbidezko ebazpena emateko betebeharra "Zuzenbide Estatuari buruzko klausularekin lotuta dago (Konstituzioaren 1.1. artikulua), baita arau gorenaren 24.1 eta 106.1 artikuluek aldarrikatzen dituzten balioekin ere", Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 21eko 6/1986 Epaia, 3. oinarri juridikoa; abenduaren 21eko 204/1987 Epaia, 4. oinarri juridikoa; irailaren 23ko 180/1991 Epaia, 1. oinarri juridikoa; apirilaren 21eko 86/1998 Epaia, 5. eta 6. oinarri juridikoak; martxoaren 26ko 71/2001 Epaia, 4. oinarri juridikoa; urriaren 27ko 188/2003 Epaia, 6. oinarri juridikoa; abenduaren 15eko 220/2003 Epaia, 5. oinarri juridikoa; eta abenduaren 10eko 239/2007 Epaia, 2. oinarri juridikoa.

Konstituzio Auzitegiaren doktrinak behin eta berriz ebatzi duenez, Administrazioak ebazteko betebeharra ez betetzeak ezin dio interesdunari kalterik ekarri. Hori dela eta, ez da desagertzen auzitegi-tara jotzeko aukera eta ez da ezarri preskripzio eperik. Halako kasuetan, "administrazioaren isiltasunaren" fikzio legalak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztea ahalbidetzen du.

Kasu honetan, elkarteak ez du auzitegi-tara jo, Arartekora baizik, erakunde hau Konstituzioaren I. tituluan jasotako eskubideak defendatzeko Eusko Legebiltzarraren goi mandataria delako (Arartekoa erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 1. artikulua).

Hala ere, interesgarria dirudi Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro errepikatzen duen doktrina –administrazioaren isiltasunari buruz– gogoraraztea. Auzitegi horren arabera, lege-fikzioa da, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsioa aurkezteko aukera ematen duena, eta Administrazioak ebazteko betebeharra ez betetzeak ezin dio interesdunari kalterik ekarri. Besteak beste, otsailaren 26ko 40/2007 Epaian (eta lehenago 329/2004 Epaian) Konstituzio Auzitegiak hauxe esan du: «... *este Tribunal tiene reiteradamente declarado que la figura del silencio es una mera «ficción legal, que responde a la finalidad de que el administrado pueda, previos los recursos pertinentes, llegar a la vía judicial superando los efectos de la inactividad de la Administración», de manera que en estos casos no puede calificarse de razonable aquella interpretación de los preceptos legales que prime la inactividad de la Administración, colocándola en mejor situación que si hubiera cumplido su deber de resolver. Más concretamente, en supuestos concretos*

como el que ahora nos ocupa hemos señalado que "no puede calificarse de interpretación más favorable a la efectividad del derecho fundamental a la tutela judicial efectiva (artículo 24.1 CE) aquella que computa el plazo para recurrir contra la desestimación presunta del recurso de reposición como si se hubiera producido una resolución expresa notificada con todos los requisitos legales, cuando ... caben otras interpretaciones que, en último término, eviten la contradicción y posición contraria al principio pro actione que supone admitir que las notificaciones defectuosas -que implican el cumplimiento por la Administración de su obligación de resolver expresamente- puedan surtir efectos 'a partir de la fecha en que el interesado realice actuaciones que supongan el conocimiento del contenido y alcance de la resolución o acto objeto de la notificación o resolución, o interponga cualquier recurso que proceda' (artículo 58.3 LPC), esto es, sin consideración a plazo alguno, y sin embargo, en los casos en que la Administración ha incumplido total y absolutamente su obligación de resolver, como son los de silencio con efecto desestimatorio, imponer sin otra consideración el cómputo del plazo para acceder a la jurisdicción a partir del día en que, de acuerdo con la normativa específica que resulte aplicable, se entienda presuntamente desestimada la petición o el recurso potestativo de reposición -artículo 46, apartados 1 y 4, LJCA" (STC 14/2006, de 16 de enero, FJ 5, y 175/2006, de 5 de junio, FJ 2).

3. Horri gehitu behar zaizkio Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren bidez erkidegoa integratzeko prozesuan garatutako administrazio ona izateko eskubidetik eratorritako eginkizunak. Izan ere, eskubide hori Europar Batasunaren esparruan oinarritzeko dela adierazi da (Europar Batasunaren Oinarritzeko Eskubideen Kartako 41. artikulua; Karta Europar Batasunaren Tratatuaren duen Lisboako Ituna sinatu zenetik Europar Batasunaren zuzenbidearen parte da). Artikulu horren arabera, administrazio onaren eskubidearen barnean honako hau sartzen da: pertsona orok bere gaia inpartzialtasunez, bidezko moduan eta arrazoizko epean tratatzeko eskubidea.

Zuzenbide hori, Europar Batasuneko bada ere, integratzen ari da Europar Batasuneko kide diren herrialdeen ordenamenduetan eta aintzat hartzen da ebazpen judizialetan; horrela gertatu zen, adibidez, Auzitegi Gorenaren 2015eko azaroaren 20ko epaian (lehenago 1203/2014 Epaia): "(...) y ciertamente tal exigencia puede deducirse incluso, no sólo de nuestro propio ordenamiento interno, sino también del derecho a la buena administración reconocido por la normativa europea (artículo 41 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea: con proyección general, no obstante lo establecido también por el artículo 51 de dicha Carta, porque resulta difícil establecer y explicar un distinto nivel de enjuiciamiento, según se aplique o no el Derecho de la Unión Europea por los operadores en el ámbito interno)".

Arartekoak jakin badaki kexa-espedita honetan salatutako jarduerak 2008an esleitutako diru-laguntza baten kitapena egiteko prozedurarekin duela zerikusia



eta behin betiko kitapena 2013. urtera arte ez zela erabaki. Zalantzarik gabe, horrek eragotz dezake ebazpen honen xedea den betebeharra betetzea. Hala ere, legearen arabera, administrazio publikoak ebazteko betebeharra du, inolako salbuespenik gabe.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, hurrengo gomendioa aurkeztu dio Arartekoak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

GOMENDIOA

Arartekoak Arabako Foru Aldundiari gomendatzen dio ebatz dezan otsailaren 14ko 16/2013 Foru Aginduaren aurka aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa.



